


Donostiaeskola'21

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren zerbitzuak handitzeko, deszentralizatzeko eta hobetzeko Proiektu Estrategikoa 2017-2021



musika dantza
donostiaeskola.eus



- [1. Sarrera eta erreferentzia puntuak](#)
- [2. Musikaren eta dantzaren hezkuntza ereduaren hiriko biztanleentzat](#)
- [3. Hirian musika eta dantza irakasteko baliabideak](#)
- [4. Donostiaeskola'21en lurralde banaketa](#)
- [5. Antolakuntza aldatzeko premia](#)
- [6. Musikaren Egoitza Nagusiaren funtzionamendua eta antolakuntza](#)
- [7. Dantzaren Egoitza Nagusiaren funtzionamendua eta antolakuntza](#)
- [8. Auzoetako Gelen funtzionamendua eta antolakuntza](#)
- [9. Ekialdeko barrutiko egoitzaren funtzionamendua eta antolakuntza](#)
- [10. Ikasleak beste ikastegi batzuetara igarotzea eta Unibertsitate inguruan talde berriak sortzea.](#)
 - [a\) Irakaskuntza arautuan sartzeara](#)
 - [b\) Beste ikastegietako ikasleak erakartzea eskolako taldeetara](#)
- [11. Kudeatzea, sustatzea eta barneko zein kanpoko tramiteak egitea](#)
 - [a\) Helburu estrategikoak eta ekintzetarako helburuak kudeatzea](#)
 - [b\) Sustapen neurriak eta marketin neurriak](#)
 - [c\) Kanpoko tramiteak \(ikasleentzat eta hiriko biztanleentzat\)](#)
 - [d\) Barneko tramiteak \(antolakuntzaren barneko prozedurak, prozesuak eta zereginak\)](#)
- [12. Proiektuaren garapenaren kronograma](#)
 - [2017-18 IKASTURTEA](#)
 - [2018-2019 IKASTURTEA](#)
 - [2019-2020 IKASTURTEA](#)
 - [2020-2021 IKASTURTEA](#)



1. Sarrera eta erreferentzia puntuak

Plan Estrategikoa idazterakoan premiazkotzat jotzen da 2017-2021 denboraldirako planteatu diren helburuak lortzeko plana egituratzea. Plan hori beharrezkoak diren ekintza asko garatzeko euskarria izango da.

Eskolaren abiapuntua gaur egungo egoera da, eta helburua eskola plazen % 50 gehiago lortzea da. Gehitze hori lortzeko, hezkuntza proiektu sendo bat behar da eta profesionalen artean adostuta. Proiektu horretarako nahitaezkoa da deszentralizazioa egitea. Izan ere, alde batetik, ezinezkoa da Atotxan instalazio handiagoak izatea eta, bestetik, zerbitzua hobetze aldera, gazteentzako (4-12 urtekoentzat) eskolak euren ingurura hurbildu nahi ditugu.

Plan horren bidez, biztanleen %1,7ra iristea da asmoa, herritarrei zerbitzuen lurralde banaketa egokia ziurtatuz eta, aldi berean, proiektuaren koherentzia sendotuz, zerbitzuen kalitatea une oro mantenduz, gure ekintzen helburu nagusi gisa.

“Donostiaeskola’21” proiektuaren bidez, aurkitutako arazo eta gabeziak batzuk konpondu nahi dira eta, halaber, Eskolaren jardunbide estrategikoak sendotu:

- 1. Ikasgai berriak sustatzea Eskola hiriko erreferentzia izan dadin, publiko berrien sorkuntza bideratzeko.**
- 2. Ikasleak eta haien familiak, hasierako mailetan, ordu egokietan eskolara joatea bideratzea, gehienez, bi aldiz astean.**
- 3. Gazteenek instrumentua ikasteari ez uzteko ahalegina egitea (gaur instrumentua uzten dutenen batez besteko adina 12 urte da).**
- 4. Musika taldean praktikatzean oinarritzen den estrategia bideratzea, Eskolako taldeak (orkestra, bandak, koroak, comboak, taldeak orokorrean...) orekatuta garatu ahal izan daitezen.**
- 5. Irakaskuntza arautuan sartu nahi duten ikasleen tutoretza eta prestakuntza egokiak ziurtatzea eta, halaber, irakaskuntza arautua uztea erabaki duten ikasleak erakartzea Eskolako taldeetan parte har dezaten, musikari amateur aktibo gisa.**
- 6. Instrumentuen irakaskuntzaren premien eta instrumentu horiek jotzeko erabiliko diren taldeen premien arrazoizko oreka ziurtatzea. Estilo ezberdinetako eskaintza zabala egingo da, musika “klasikoa” edo/eta “moderno” landuko duten taldeekin.**
- 7. Gainerako hezkuntza sistemarekin, hau da, nahitaezko eta nahitaezkoaren osteko irakaskuntzarekin, harremanak izatea, batez ere musika hezkuntza arautuari eta unibertsitateko inguru amateurrari dagokienez.**



Ez ditugu ahaztu nahi 289/2 Dekretuan ezarritako helburuak; izan ere, **25 urtean aldatu ez diren arren**, Musika (eta Dantza) Eskoletako Musika Irakaskuntza Espezializatuaren erreferentzia eta jarduera esparrua izaten jarraitzen dute.

- A. *Musikaren kultura praktikoa eskatzen duen gizartearen parte handi bati erantzuna ematea, musikazaleak pertsonalki errealizatu daitezen eta haien kultura eta espresio ondarea zabaldu dadin, euren buruarekin eta inguruarekin harmonia egoera lortzeko.*
- B. *Musika irakaskuntza ez arautua eta erabat praktikoa eskaintzea, taldeko musika egiteko helburu nagusiarekin.*
- C. *Beraz, ikaslearen banakako zein taldeko parte hartze aktiboa sustatzea eta eskolaren eta hari dagokion gizarte esparruaren arteko harremanak bultzatzea. Gizartera zabaldu gabe, norbere buruan hasi eta amaitzen den ikaskuntzak bere izaeraren parte handi bat galtzen du.*
- D. *Gutxieneko alderdi teorikoak ematea, egintza musikala orokorki ulertzeko ezinbestekoak direnak, eta, hasiera batean, teoria sakontzeko premia sentitzen duten ikasleek eurek eskatuta.*
- E. *Zerbitzu hori ikasleei haurtzarotik zahartzaroraino (adina aintzat hartu gabe) eskaintzeko aukera izatea.*
- F. *Musika jarduerari dagozkion aukera guztiak eskaintzea: musika klasikoa, antzinakoa, modernoa, tradizionala, herrikoia, hainbat joera, rocka, jazza, musika elektronikoa, eta abar.*
- G. *Irakaskuntzaren programazioa ikaslearen interesetara, arduraldira eta ikasketa erritmorra egokitzea, betiere, ikasleek jasotako ikaskuntza egoki aprobetxatzeko gutxieneko gaitasunak izan beharko dituztela kontuan hartuta. Ondorioz, eskaintza ikasleen interesen eta gaitasunen arabera planifikatzeko askatasuna eta autonomia izatea.*
- H. *Musika estilo guztiak entzuteko zaletasuna bultzatzea eta izate kritikoa garatzea ikasleengan zein biztanle orengan.*
- I. *Irakaskuntza tekniken hobekuntza sustatzea, irakasleen hobekuntza eta eguneratzea etengabe gauzatuz.*
- J. *Gaitasuna eta interesa duten eta ikasketa arautuetan aritzeko baldintzak betetzen dituzten eta borondatea duten ikasleei orientazioa eta prestakuntza sakonagoa ematea, musika irakaskuntza arautuko hezkuntza zentroetarako ikasle motibatuen eta gai diren ikasleen harrobia izanik.*
- K. *Tokiko zein lurraldeko musika tradizioak biltzea, sistematizatzea eta hedatzea eta tradizio horiei lotuta dagoen herriaren identitate kulturalaren ardatz bihurtzea.*



-
- L. *Lurraldeko, Euskadiko, Espainiako eta Europako gainerako musika eskolekin koordinatzea, elkarren artean irakasteko metodologiak, irakasleak, ikasleak, jarduera bateratuak, antolakuntzarako eta funtzionamendurako ereduak eta abar errazago trukatzeko harremanak izateko.*
- M. *Musikaren kultura herrikoian eragin positiboa izatea, ikasleak prestatuz eta, halaber, musika taldeen etengabeko jarduera publikoen bidez musikak gizartean duen zuzeneko eragin hedatzaileaz baliatuz.*



2. Musikaren eta dantzaren hezkuntza eredu hiriko biztanleentzat

Musika eta Dantza Eskola, Musika Eskolen Dekretuak ezartzen dituen helburuak kontuan hartuta, herritar guztien garapen etapez arduratu beharko litzateke. Proposatzen diren jarduerak interesgarriak eta ikasleen garapen psikologikoari egokituak izan behar dute eta baldintza horiei erantzuten dieten ikasgaiak eskaini behar dira.

Eskolak eskaintzen dituen jardueraz gain, beste erakunde eta hezkuntza zentroek egiten dituzten jarduerak ere kontuan hartu behar ditugu. Ikus dezagun proposatutako eredu. Eredu horretan "entzutea" sustatu nahi da eta instrumentuekin eta helburuetako bat musika taldeetan jotzarekin lotuta ez dauden beste esperientzia batzuk bideratzea da (ikus, "Auzoetako gelen funtzionamendua eta antolakuntza" atala).

Herritarrentzako musika hezkuntza bizitza osoan nola garatzen den kontuan hartuta planteatu behar dugu, gizakiaren bilakaera aldietara egokitutako eskolak, jarduerak eta lantegiak eskainiz eta, musikaren bidez bizitza aberasteaz gain, gure gizarteari kohesioa eta laguntza emateko egiazko ekarpena eginez. Horrela, Musika Eskolak beste erakunde batzuekin harremanetan jarri behar du eta musika bizitzako etapa guztietan baliagarria izatea ziurtatu behar du, herritarren garapen horren premien arabera eskaintza eginez. Hona hemen oraingo eskaintza:

1. Garapen etapak: Jaioberriak eta haurrak,

- a. IRAKASKUNTZA OROKORRA: 0-3 urtekoak eta LEHEN HEZKUNTZA
- b. Donostia Kultura (sentsibilizazioa) eta 0-2 urtekoak.
- c. Donostiaeskola, 3-7 urtekoak. **1. MAILA:**
 - i. **Auzoetako gelak: Musika eta Mugimendua (3-5 urtekoak)**
 - ii. **Auzoetako gelak / Atotxa: Musika Tailerra (6-7 urtekoak)**
 - iii. **Dantza Eskola/Ekialde barrutia: Dantza Tailerra (6-7 urtekoak)**
- d. Donostiaeskola, 8-11 urtekoak: **2. MAILA:**
 - i. **Instrumentuen irakaskuntza**
 - ii. **Ahotsaren irakaskuntza (Koroa)**
 - iii. **Dantza**
 - iv. **Auzoetako gelak: Joera berriak, "Musika proiektuak" (8-12 urtekoak)**

2. Garapen etapak: nerabezaroa eta gaztaroa


- a. IRAKASKUNTZA OROKORRA: BIGARREN HEZKUNTZA, BATXILERGOA, LANBIDE HEZIKETA, UNIBERTSITATEA
- b. Donostia Kultura
- c. Donostia Kirola
- d. Gaztelekuak
- e. Donostiaeskola **2. eta 3. MAILAK:**
 - i. **Instrumentuen irakaskuntza**
 - ii. **Ahotsaren irakaskuntza**
 1. **Abesbatza**
 2. **Solista (16 urtetik aurrera bakarrik, ahotsaren aldaketagatik)**
 - iii. **Dantza**

- f. Donostiaeskola **4. MAILA:**
- i. **Talde instrumentalak Egoitza Nagusian (Atotxa)**
 - ii. **Talde instrumentalak Unibertsitatean**
 - iii. **Auzoetako gelak: Joera berriak, "Musika proiektuak" (13-16 urtekoak)**
- g. **Irakaskuntza profesionalak eta musika profesionalak**

3. Garapen etapak: helduaroa eta zahartzaroa

- a. **APRENDIZAJE A LO LARGO DE TODA LA VIDA**
- b. Donostia Kultura e Instituciones de la ciudad (OSE, Quincena, Kutxa Fundazioa...)
- c. Donostia Kirola
- d. Donostiaeskola **2. eta 3. MAILAK**
- i. **Instrumentuen irakaskuntza**
 - ii. **Dantza**
- e. Donostiaeskola **4. MAILA:**
- i. **Talde instrumentalak eta abesbatzak Egoitza nagusian (Atotxan)**
 - ii. **Auzoetako gelak: Joera berriak, "Musika Entzute Aktiboa eta Proiektuak" (helduak)**
 - iii. **Taldeko emanaldiak +55 urtekoentzat**

Eskema hori osatzen da irakaskuntza mota bakoitzari dagozkion helburuekin, irakaskuntza moten arteko harremanekin eta haien emaitzarekin (profesional edo amateur bihurtzea). Hurrengo eskeman Donostiako herritarrek musikaren eta dantzaren arloetan eskuratu ditzaketzen hezkuntza aukerak:




Ez dugu ahaztu behar Musikak lurraldeko kohesio soziala lortzeko balio duela eta lotura estua duela biztanle guztien integrazioa lortzeko hiriak egiten dituen politika kulturekin. Europako jarduerak eta esperientziak kontuan hartuta, gauza txarrak (hiritako ghettoak eta auzo pobreak) eta onak ikasi behar ditugu, Musika eta Arteen bidez gizarteratzea lortzeko (adibidez: Amsterdameko eta Mataroko Arte Eskolak

3. Hirian musika eta dantza irakasteko baliabideak

Donostiako hiria erreferentzia da estatuan musika arloan, hezkuntza erakundeak, orkestra, abesbatza, jaialdiak eta abar direla-eta. Udal Eskolak harremanak izan behar ditu erakunde horiekin guztiekin, hitzarmenen bidez proiektuak eta baliabideak partekatuz, helburuak jende gehienarengana iritsi daitezten. Elkarrekin partekatzeko hezkuntza elementuak hauek dira:

- Nahitaezko irakaskuntza: Musikaren eta dantzaren paperari buruzko hausnarketa egin behar da eta bideak bilatu behar dira Donostiako Berritzegunearekin eta ikastegiekin koordinatzeko, haien egiten diren entzute aktiboez (kontzertu pedagogikoez) gain.
- Irakaskuntza espezializatua: Ikasleak ikastegi batetik bestera nola pasatuko diren egituratu behar da, ikastegiak profil desberdineko ikasleez arduratzen direla kontuan hartuta.
 - Udal Eskola (zaleentzako zerbitzu unibertsala, irakaskuntza profesionalean sartzeko lehen mailatzat hartuta).
 - Profesionala edo ertaina (goi mailako irakaskuntzan sartzeko).
 - Goi mailakoa eta profesionalizatzeko zerbitzuak musika eta dantzarako.
- Eskola eta akademia pribatuetako irakaskuntza.
- Irakaskuntza partikularra.
- Unibertsitatea eta etorkizuneko aukerak.

Hori guztia kontuan hartuta, familien premia guztiez arduratzen den Udal Eskolaren eredia zehaztu nahi da Donostiarako, lurraldeko zentroetara iristeko bidea erosoagoa eta egokiagoa izan dadin.





Baina Eskolak bere helburu estrategikoetan arrakasta izan dezan, hezkuntza eredu horrek gainerako erakunde kulturalen premia du eta, haien indarrekin bat eginez, helburuak partekatu behar ditu:

- Hiriko programatzaileak: Beharrezko aliatuak dira, publiko berriak sortzen laguntzeko, Eskolako jarduera hirian proiektatzeko, gure ikasleen emanaldiak programatuz.
 - DK ekintza kulturala (kultur etxea)
 - DK Victoria Eugenia SA
 - DK jaiak
 - Hamabostaldia
 - Jazzaldia
 - Kursaal fundazioa
 - Tabakalera
 - Euskadiko orkestra
- Udaleko atalak:
 - Hezkuntza, Gazteria eta Gizarte Ongizatea
 - Auzoak eta Herritarren Partaidetza
- Abesbatzak eta inguruko talde ez profesionalak
- Beste zenbait eskola eta erakunde




4. Donostiaeskola'21en lurralde banaketa

Gaur, Atotxako egoitza nagusiaz gain, Eskolak 2 musika gela ditu Altzako eta Intxaurrondoko Kultur Etxeetan (Donostia Kultura). Zenbait auzotan gelak jartzeko asmoa dugu, baina kontuan hartuta horietako batzuek ez dutela kultur etxerik eta, horrez gain, zenbait kultur etxetan leku falta dagoela, gure Auzoetako Gelak Ikastetxeetan ezarri beharko lirateke.

Gainera, musika gelak ikastetxeetan jartzeak badu abantaila handi bat: hurbiltasuna; izan ere, ikasle izan daitezkeenak eta haien familiak eskolak emateko erabiliko diren espazioetatik hurbilago egongo dira.

Antolakuntza egokitu egin daiteke, pertsona berak bi lekutan eskolak eman ahal izateko eta, horrela, bi egun eman ditzake auzo batean eta beste bi beste auzo batean, egiazko eskaeraren arabera. Auzoak elkarrengandik urruti ez egotea komeniko litzateke, planteatutako jarduera osagarrien bidez sare sozial bat lortu ahal izateko bi auzoetako ikasleekin.

Adin jakin batzuetan arrakastaren arrazoietako bat zerbitzua hurbil egotea dela planteatzen da. Horregatik, musika gelez gain, 2021 urterako proiektu estrategiko honetan, Ekialdeko barrutian jarriko den Barruti Eskola bakarra ezartzea planteatu da. Eskola horren bidez, irakaskuntza espezializatuagoa eskaini ahal izango da, egoitza nagusitik urruti bizitzegatik nekez iritsi daitezkeen herritarrentzat.





Irakaskuntzak hainbat hezkuntza zentrotan ezartzeko, zenbait alderdi kontuan hartu behar dira: kokapen geografikoa, instalazioak, ezartzeko aukerak eta abaguneak. Hasiera batean, bideragarritzat eta zerbitzuaren eta hurbileko biztanleen premien arabera egokituz jotzen diren kokapen hauek planteatu dira.

Lurraldea	Biztanleak	%1,7	Donostiaeskola	IKASTETXEA	Helbidea / Dirección
EB - DE	45.757	778			
Bidebieta	9.169	156	Auzoko gela		
Intxaurreondo	16.211	276	Auzoko gela		
Altza			Auzoko gela		
Herrera / Larratxo	20.377	346	Escuela Distrito		
IB - DN	38.360	652			
Egia	14.956	254	Musika eta Dantza Egoitza nagusiak	DONOSTIAESKOLA - CENTRAL DE MÚSICA DONOSTIAESKOLA - CENTRAL DE DANZA	
Gros	19.442	331	---		
Ulia	3.962	67	---		
EHB - DCS	58.657	997			
Parte vieja	6.083	103	---		
Centro	10.077	171	---		
Amara Berri			Auzoko gela		
Riberas de Loiola	28.114	478	Auzoko gela		
Amara Morlans	6.528	111	Auzoko gela		
Loiola Txomin	4.962	84	---		
Martutene	2.893	49	Auzoko gela		
MB - DO	43.697	743			
Aiete Miramón	15.662	266	Auzoko gela		
Igeldo	1.072	18	---		
Ibaeta	9.408	160	Auzoko gela		
Antiguo	15.084	256	---		
Zubieta	294	5	---		
Añorga	2.177	37	Auzoko gela		

Zentrozen kokapenak:

- [Gela berriak ezartzeko kokapenen proposamenak](#)
- [Hezkuntza zentrozen erreferentziak ikusi](#)
- [Kultura Zentrozen erreferentziak ikusi](#)



5. Antolakuntza aldatzeko premia

Gelak auzoetan zehar ezartzeko eta gerora Barrutiko Eskola berriak sortzeko aukera ere kontuan hartuta, aldaketak egin beharko dira egituraketan. Aldaketa horiek egiteko, dokumentu instituzionalak egokitu egin beharko dira, funtzionatzeko era berria zehaztuz, langileen arteko elkarlana eta laguntza errazten saiatuz; proiektu berritzailea eta planteatu diren helburuekin koherentea lortzeko.

Oraingo funtzionamendu ereduarekin ezinezkoa izango litzateke hedapena, hasten diren irakasle berriekin taldean jarduten ez badugu eta zenbait prozesu eta prozedura berriro planteatzen ez badira. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP) eta Eskolaren Antolakuntzaren eta Funtzionamenduaren Araudia (AFA) egokitu egin beharko dira, premia berrietara egokitzeko.

1. Donostiaeskola'21ean planteatutako baliabide berriak proiektuan sartzea eta integratzea eta sistemaren elementu guztiak Ikastetxeko Hezkuntza Proiektu (IHP) bakarrean integratzea. Ondorengo elementuak bereziki kontuan hartu behar dira eta hobetzeko proposamen zehatzak egin beharko dira:
 - a. Musikaren Egoitza Nagusiaren funtzionamendua eta antolakuntza
 - b. Dantzaren Egoitza Nagusiaren funtzionamendua eta antolakuntza
 - c. Musika Denontzat emango duten Auzoetako Gelen funtzionamendua eta antolakuntza
 - d. Ekialdeko barrutiko egoitzaren funtzionamendua eta antolakuntza
 - e. Ikasleak beste hezkuntza maila batzuetara nola pasatzen diren arretaz zaintzea.
 - f. Unibertsitate inguruko taldeak.
2. Antolaketa egitura, zuzendaritza pedagogikoa eta koordinazio karguak barne, eredu berrira egokitu beharko da, irakasgaien berriazko ezaugarriak eta egoitzen izaera kontuan hartuta:
 - a. Zuzendaritza pedagogikoa: zuzendaritza pedagogiko bat ezartzea planteatzen da, Eskolaren egoitza guztiak koordinatzeko. Zuzendaritza lan hori bateragarria izango litzateke kargudunaren jatorrizko egoitzaren zuzendaritza lanarekin.
 - i. Musikaren Egoitza Nagusia, Atotxako zelaian kokatua.
 - ii. Dantzaren Egoitza Nagusia, Nestor Basterretxean kokatua.
 - iii. Ekialdeko Barrutiko Eskolaren egoitza. Seguruena Larratxon egon beharko litzateke, barrutiaren erdigunean baitago.
 - b. Zuzendaritza pedagogikoarekin batera 3 Ikasketa Buruzagitza ezarriko dira (egoitza bakoitzean bat).
 - c. Auzoetako gelen irakasleen koordinatzailea.
 - d. Emanaldi publikoen koordinazioa.
 - e. Liberazioak, berrikuntzarekin eta berriazko proiektuekin lotutako zeregin berriak garatzeko (sareak, blogak, entzute aktiboak, proiektuak eta unitate didaktikoak egitea...).
3. Zenbait alderdi nahitaezkoak dira: taldean lan egitea, hausnarketa egiteko espazio partekatua izatea eta sortutako materialak partekatzea sustatzen duen filosofia bultzatzea. Espezialitate kolektiboan eta taldekakoan irakastorduen lan karga onargarria izan dadin, irakasle batek sortzen dituen materialak eta unitate didaktikoak besteek aprobetxatu ahal izan beharko dituzte. Horretarako, ezinbestekoa da langile guztien koordinazioa eta elkarlana.



4. Hezkuntza eskaintza egokitzea:
 - a. Lurraldearen planteamendu berria kontuan hartuz, ikasleak hainbat ikasgaitan aurrera egingo dutela eta egoitzen arteko harremanak aurreikusiz.
 - b. Auzoetako gelen irakasleek eskainiko dituzten irakasgai berriak. Helburua gazteentzat erakargarria izatea da eta helduen kasuan, gelan ikasitakoa hiriko musika eta dantza eskaintza aberatsarekin lotzea.
 - c. Taldeen premiak eta instrumentuak ikasteko eskaintzen diren plazak orekatzea. Barrutiko Egoitzaren eskaintza Egoitza Nagusienarekin osatzen saiatzea.
 - d. Pertsona bakoitzak instrumentua banaka ikasteko urte kopurua mugatzeari buruzko eztabaida sortu behar da, hainbat alderdi kontuan hartuta: zenbait espezialitatetan dauden itzarote zerrendak, baliabide mugatuak, eta ikasi nahi duten pertsonen aukera ematearen aurrean, ikasitako urteen arabera garapen teknikorik erakusten ez duten pertsonen egoera aztertuta.
 - e. Irakasleen ordezkapen laburrak egitea zaila denez, ezinbestekoa da aukera eraginkorra eta baliagarria planteatzea, eskola saio kolektiboetarako eta banakakoetarako.
5. Herritarrentzako tramiteak eta kudeaketak Internet bidez egin ahal izan behar dira, zeren, bestela, edozein izapide egiteko Egoitza Nagusira joan behar izanez gero, lurralde osora hurbiltzeko helburua ezin izango bailitzateke lortu.
6. Aldaketa hauek, adinen, generoen eta abarren oreka handiagoa lortzeko politika jakin batzuk bultzatzeko aprobetxatu behar dira.
7. Langileen eta eginkizunen aldaketek, nahitaez, aldi iragankorra eskatzen dute eta denbora tarte hori aprobetxatu egin behar da aldaketak adostuak eta Eskolaren benetako premietara egokituak direla ziurtatzeko. Dokumentu instituzionalen aldaketak (IHP eta AFA) 2017-2018 ikasturtean amaitu daitezkeela kalkulatu da.
8. Irakasleak musikari, egile edo interprete gisa jarrai dezaten bultzatu behar da; horrela, haien motibazioa eta etengabeko eguneratzea mantentzen dugun bitartean, ikasleen erreferentziak eta ereduak irakasleak eurak izango direla ziurtatuko dugu, musikari gisa entzungo baitituzte. Era berean, geroko profesionalak, MUSIKENEko edo DANTZERTIko ikasleak batez ere, eredu izango dira gazteentzat eta motibazioa amateurrentzat.



6. Musikaren Egoitza Nagusiaren funtzionamendua eta antolakuntza

Egoitza Nagusian, musikako zerbitzu nagusiez gain, zerbitzu hauek mantenduko dira:

- Administrazioa, zerbitzu nagusiak eta kudeaketa
- Egoitza nagusiko liburutegi espezializatua
- Musika ikasteko gelak, herritar guztientzat

Kezkatuta gaude gaurko instalazioez, haien mantentze lanez eta bertan ematen diren zerbitzuez. Eskolaren egoitzak eta hango ekipamenduak dituzten erakargarritasuna eta funtzionaltasuna mantendu egin behar dira eta, halaber, estrategikotzat jo behar dira, ikasleak orain bezain pozik egon daitezen.

Musika Eskolaren ezaugarriak funtsean ez dira aldatuko, ezta irakaskuntza eredia ere ez. Hobekuntza eskaintza handiagoan ikusiko da, jende gehiago aritu dadin, bai instrumentua ikasten, baita taldeko musika egiten aritzeko ere. Planifikazio honekin, orkestrek, bandek, abesbatzek eta beste zenbait taldek naturalki sendotzeko aukera izango dute, hiriko gainerako aldeetatik (auzoetatik) datozen ikasleekin. Atotxako egoitzak hiri osorako musikako egoitza nagusia izateko eginkizuna izango du eta, halaber, egokitu egin beharko da eta hurbilen dauden auzoetako (Egia, Gros, Erdialdea...) basea izango da.

Ikasleen kopurua % 50 handituz gero, orkestrak, bandak eta bestelako taldeak osatzen dituzten kideak sendotu egin daitezke antzeko proportzioan edo handiagoan. Horrela, gaur egun, hari jakin batzuen interpreteak faltatzeagatik arazoak dituzten zenbait taldetan dauden ahultasunak murriztu egingo dira, seguruenik. Hainbat taldek (orkestra, banda, abesbatzak, dantza, antzerkia...) parte hartzen duten entseguetarako, leku osagarria prestatu behar da. Espazio horrek Nestor Basterretxeako egoitzan egon beharko du, eraikinak duen funtzionaltasunagatik eta egiazko aukerengatik.

Gainerako egoitzetan lan egin beharko da inguruko ikasleak taldeetara erakartzeko eta orkestretan, Big Bandetan edo bandetan jotzea eta diziplina anitzeko proiektuetan parte hartzea eskaintzeko.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan (IHP) egingo den aldaketa orokorrean, zenbait egokitzapen planteatu behar dira, irakasleek eta sailek adierazi dituzten kezkei erantzuna emateko. Aldaketok, ahal izanez gero, adostuta egingo dira eta, hala ez bada, ikasleen gehiengoaren sentsibilitatearen arabera:

1. Premiazkoa da, orkestrako instrumentuei dagokienez, banakako eskolak emateaz gain, aukera ematea taldeko jarduera praktikatzeko eta prestatzeko, instrumentuen topaketak egiteko... Eta aldi berean, ikasle gazteenen "musika bidezko gizarteratzea" lortzeko, taldekide guztiak batera orkestretara, bandetara eta elkarteetara joan ahal izan daitezen.
2. Taldeko praktika (orkestra, bandak, abesbatzak, taldeak oro har...) jarduera pedagogikoaren erdian ipini behar da.
3. Orkestrakoak ez diren espezialitateetako ikasleei aukera eman behar zaie taldeetan integratzeko, esperientziaren eta bilakaeraren ondorioz sortu litezkeen eredu berriez gain, ondorengo aukeretako batzuk baliatuz:



- a. Talde "polimorfiko" berriak sortzea (pianoa, gitarra, akordeoia...)
 - b. Ganbera taldeak, comboak... Talde horietan, rolak bikoiztu egin daitezke eta ohikoetan baino plaza kopuru gehiago egon daitezke.
 - c. Instrumentu bera elkarrekin praktikatzeko taldeetan parte hartzea (taldeak, 4 eskuz, banakako interpretazioari buruz eztabaidatzeko mintegiak...)
 - d. Bigarren espezialitate baten bidez (abesbatza, instrumentua, perkusioa, ahotsa...) taldera egokitzeko aukera izatea.
4. Eskolako ikasleen ordezkapenak egiteko formula eraginkorrak, entzutearekin lotutako jardueren bidez eta ikasleentzat interesgarriak eta zentzuzkoak izan daitezkeen musika proiektu informala goak erabiliz.
 5. Langileen erretiroak kontuan hartuta, instrumentuen eskaintza egokitzea Eskolako taldeen premien arabera orekatzeko.
 6. Musika hizkuntzaren irakaskuntza instrumentuen irakaskuntzarako denbora gehiagoren beharrarekin uztartzeko aukeren inguruan hausnarketa egin, .
 7. Instrumentuak ikasteko plaza kopuru jakin batzuk ziurtatzeko premia. Horretarako, 5.4.d. puntuan planteatutako hausnarketak kontuan hartu behar dira; premia dago instrumentuen banakako irakaskuntzan ikasleek jardun behar duten urte kopuruari buruzko eztabaida planteatzeko.



7. Dantzaren Egoitza Nagusiaren funtzionamendua eta antolakuntza

Dantzako eraikuntza inauguratu denean, egoitza koordinatzeko pertsona baten premia ikusi da. Koordinatzaile hori egoitzan dantzako eskolak ematearen ondoriozko alderdiez arduratuko da (irakasleak koordinatzea, eraikina eta haren mantentze lanekin lotutako alderdiak, tutoretza eta ikasleen familiez arduratzea).


Dantzaren hezkuntza eskaintza finkatu beharko da, ondorengo irakasle kopuruaren arabera: klasikoko espezialitaterako 2 irakasle, garaikideko espezialitaterako 2 irakasle eta euskal dantzarako irakasle 1.

Dantza Hastapenak irakasgaiari buruzko hausnarketa egin behar da, formula integratzaile bat bilatuz eta taldeak normalizatuz, eta asmo profesionalak dituzten eta ez dituzten ikasle guztien itxaropenei eta premiei erantzutea ziurtatzen duen lerro osoa sortu.

Emanaldiak dantzako eskolen alderdietako bat bezala planteatu behar dira.

2-3 urtean instalazioak handitu egin behar dira alderdi hauek bideratzeko:

1. Dantzako beste gela bat (1)
2. Bi gela taldeko entseguak egiteko, musikako jarduera mistoak egiten direnean (orkestra, kantariak, abesbatzak).
3. Jarduera anitzeko laguntzaile batentzako kontrol gune bat ezartzea, arratsaldean, instalazioak kontrolatzeko eta mantentzeko.





8. Auzoetako Gelen funtzionamendua eta antolakuntza

Edonori ea musikaririk badakien galdetzen diogunean eta baietz erantzuten digunean, partiturak irakurtzen (solfeoa) edo instrumenturen bat jotzen dakiela pentsatu ohi dugu. Auzoetako gela berrietan eskolak emateko nahi dugun profil profesionala betetzen duen irakasleak ez du funtsean bi gauza horietako bat ere egin behar; aitzitik, ikasleek egintza musikala pozik eta euren kabuz bizi, sentitu eta esperimentatu dezaten saiatu behar du profesionalak eta ez du bakarrik musika egiteko erabiltzen diren berriazko erremintak edo instrumentuak irakatsiko.

Plan Estrategikoaren ondorioz, Donostiaeskola'21 proiektuan Musika Gela planteatu da auzo bakoitzean, musika irakasteko zerbitzu espezializatuak eskaintzeko, ondoko ezaugarri hauek kontuan hartuta:

- Eskola kolektiboak beti. Helburua, musika gizarteratzeko eta pertsona garatzeko tresna gisa erabiltzea.
- Irakasleak, hizkuntzaren pedagogian oinarrituta, berriazko eginkizuna garatuko du eta ez instrumentuak jotzen irakastearen murrizketan.
- Eginkizun nagusia: entzute aktiboa, musikazaleak sortzeko eta bere inguruan (kultur etxeetan, tabernetan...) egiten diren musika programen zerrenda eta, halaber, musika proiektuak garatzea inguru sozial eta kulturean.
- Taldeak eta profesional horien irakastorduen antolakuntza.
 - 1. maila: 5 talde, adin bakoitzerako bat: 3, 4, 5, 6 eta 7 urtekoak.
 - Musika Proiektuak: 3 talde gazteentzat.
 - Entzute aktiboa: Talde 1 helduentzat.
 - 2 eskola ordu ikastetxeetan, gazte lekuetan, nagusien egoitzetan..., entzute aktiboa eta proiektu komunitarioak sustatzeko asmoz, arte espezialitate honetatik.
 - Irakasleen arteko koordinaziorako ordu bat, garatzen den programazioa partekatu eta elkarrekin lantzeko.

					Edades	Horario	Al. min.	Al. máx.
					3	60	4	8
					4	60	6	12
					5	60	6	12
					6	90	6	15
					7	90	6	15
					MP: 1-1	120	6	15
					MP: 1-2	120	6	15
					MP: 2-1	180	6	15
					MP: 2-2	180	6	15
					MP: 3	120	6	15
					EA	90	6	30
					Koordinazioa	60		
					Besteak	120		
					TOTAL	22,5	64	167
15:00					Besteak: Lagunkoia, eskolekin jarduerak....			
16:00								
					Escucha activa			
17:00	6	3	6	3				
		4	7	4				
	7	5	7	5				
					MP: 3			
	MP: 1-1	MP: 1-2	MP: 1-1	MP: 1-2				
18:00								
	MP: 2-1	MP: 2-2	MP: 2-1	MP: 2-2				
19:00					Besteak: 2 horas semanales en centros escolares, en residencia ancianos, jóvenes... etc.			
					OHARRAK: Cuando exista actuación, concierto, se suspenderán las clases programadas invitando al alumnado a participación de la misma Los días de las clases que son 2 por semana, se irán modificando en cada caso para poder especializar y dar posibilidades al ciudadano y a la escuela (horario de sustituciones en la propia escuela...)			
20:00								

Orientazio metodologikoak:

- ["Auzoetako gelen irakasleen profilaren deskribatzaileari" buruzko erreferentziako dokumentua](#)



9. Ekialdeko barrutiko egoitzaren funtzionamendua eta antolakuntza

Eskola honetan, lanaldi osoan arituko diren 8-10 laguneko irakasle taldea egongo da. Gutxieneko helburuak ezartzen saiatuko gara, parte batean egoitza nagusiarekiko autonomia izaki, erabat osagarria izango den proiektuarekin, zeren espezializazioa egunero ematen baita egoitza nagusian.

Horrela, irakasleak hauek izango dira:

- Musika denontzat emateko irakasle bat
- Jatorri tradizionalako musika emateko irakasle bat (trikitia + beste espezialitate bat)
- Dantza emateko irakasle bat
- Biolina/biola emateko irakasle bat
- Biolontxelo + beste espezialitate bat emateko irakasle bat.
- Zurezko haizezkoak emateko irakasle bat (saxoa + klarinetea edo flauta).
- Metalezko haizezkoak emateko irakasle bat (tronpeta + tronboia).
- Gitarra / gitarra elektrikoa / baxu elektrikoa emateko irakasle bat.
- Bateria / perkusioa emateko irakasle bat

Proposatutako auzoa Larratxo da eta horren arrazoiak hauek dira:

- Biztanleak
- Irisgarritasuna eta barrutiko erdigunea izateko aukerak.
- Instalazioen ahalbideak

Auzoetako geletatik eskola horretara aise pasatzea ziurtatu beharko da eta baita Musikaren edo Dantzaren egoitza nagusietako taldeetara pasatzea ere.



10. Ikasleak beste ikastegi batzuetara igarotzea eta Unibertsitate inguruan talde berriak sortzea.

Bi bide landu behar dira:

a) Irakaskuntza arautuan sartzea

Irakaskuntza arauturako sarbidea prestatzeko taldeak planteatu beharko lirateke eta ez bakarrik Eskolako ikasleentzat, baizik eta irakaskuntza arautuan sartu nahi duten probintziako ikasleentzat ere, nahikoa pertsona interesatu ez dagoen inguruan bizi direnak eta ezin dutenak irakaskuntza arauturako berriarazko irakaskuntza hartu.

Garrantzitsua da tutoretza formalizaturako sistema egotea, espezialitateetako ikasleek taldekako lana egin dezaten irakasgai osagarriekin. Halaber, sistema ikasleen premien eta itxaropenen arabera egokitu behar da, sistema arautuan dauden aukerak eta plazak erabiliz.

Horretarako, sarrera probak aztertuko dira eta haien arabera ikasturte baterako irakasgaiak programaturako dira, aipaturako ikastetxeetarako sarbidea prestatzeko. Proba haietarako matrikulatu diren pertsona guztiekin, espezialitateko eskolez gain, berriarazko ganbera taldeak eta combo taldeak antolatuko dira eta, horrez gain, sarrera probako zati teorikorako eskola bereziak emango dira. Honako alderdi hauek landuko dira bereziki:

Musika, maila profesionalerako sarrera – Escudero kontserbatorioa:

- Kontserbatorio profesionalerako 5-6 ikasturte (instrumentuen espezialitateak)

Musika, Goi mailarako sarrera – MUSIKENE:

- Jazz Interpretazio.
- Hizkuntzaren Pedagogia
- Konposizioa eta zuzendaritza

Dantza, profesionalizatzeko programetarako eta DANTZERTIrako sarrera

- Konpainietarako sarrera: Dantzaz...
- Dantzarako sarrera, Dantzertin (garaikidea)
- Beste dantza ikastegietarako sarrera (klasikoa)
- Baionako eta Biarritzko kontserbatorioetarako sarrera (Dantza)

b) Beste ikastegietako ikasleak erakartzea eskolako taldeetara

Musika irakaskuntzako beste ikastetxe batzuk utzi duten ikasleak edota euren ikastetxeetan bere mailako edo interes bereko talderik aurkitzen ez dituztenak. Ikasketak amaitu dituzten edo beste herrietatik lanera etorri diren pertsonak ere izan daitezke, dauden taldeetan musika praktika aktiboa izan nahi dutenak.

Elkarteetan musika jotzeko aukera eskaini behar da: Elkarrekin, besteak beste, bandetan, big bandetan, comboetan edo orkestretan musika jotzeko aukera eskaini behar da. Kasu guztietan, Eskolako taldeek hariak sendotu beharko dituzte, musikan oso interesatuta dauden pertsonekin.

Komunikatzeko ahalegin horiek, eskola irekiak, sustapen kontzertuak... jarduteko bi ardatzen arabera planteatu behar dira:



- Eskolako ohiko taldeak:
 - Banda (haizezkoak) eta Orkestra (harizkoak) txikientzat. 12 urtera arteko ikasleak
 - Banda (haizezkoak) eta Orkestra (harizkoak) gazteentzat. 18 urtera arteko ikasleak
 - Maila on samarreko taldeak, adina kontuan hartu gabe: banda, orkestra, big banda, talde barrokoa, abesbatzak, dantza...

- Unibertsitate inguruan eskainiko diren talde berriak, Gipuzkoako campusaren laguntzarekin
 - Hari orkestra
 - Banda (haizezkoak)
 - Proiektuak (musika, dantza...)



11. Kudeatzea, sustatzea eta barneko zein kanpoko tramiteak egitea

Eskolako administrazioko eta kudeaketako tramite guztiak berriro ordenatu beharko dira, informazioa online zein Eskolan bertan erabili ahal izateko. Bi tramite mota bereizten dira: kanpokoak, hau da, herritarrek eta Donostiaeskolako beste erabiltzaile batzuek erabili ditzaketen zerbitzuei dagozkienak, eta barneko prozedurak, sinplifikatu eta protokoloan sartu behar direnak, lanpostuetako langileek errazago lan egin dezaten eta, aldi berean, etengabeko hobekuntza ziurtatzeko, zerbitzu hobekak emateko asmoz.

a) Helburu estrategikoak eta ekintzetarako helburuak kudeatzea

Eskolaren kudeaketa ematen dituen zerbitzuen arabera planteatuta dago. Zerbitzu horiek ondorengoak dira:

- Irakasleen zerbitzua
- Emanaldien zerbitzua, txistularien udal bandaren bitartez.
- Liburutegi zerbitzua
- Administrazio zerbitzua, hiritarrentzako zerbitzuez arduratzeaz gain, Erakunde Autonomoak behar dituen laguntza zerbitzuak kudeatzen dituena.

Garatzen joango diren kudeaketa memorien emaitzen arabera egingo da planifikazioa eta helburu estrategiko guztiak lortzeko, gainerako helburu operatiboak ere kudeatu egingo dira.

Hori guztia egiteko, profil profesionala eta gerora beharko diren langileen aurreikuspenak funtsezkoak izango dira eta honako alderdi hauek kontuan hartuko dira:

- Irakasleen / interpreteen profila
- Administrazioen / kudeatzaileen profila
- Zahartzea eta plaza batzuk kentzea eta beste batzuk sortzea
- Erretirotik hurbil dauden langileentzako bigarren jarduera. Gehiago egin dezake beste jarduera batean eta lanpostuan eskatzen den jarduera fisikoa ez dator bat lanpostuan aritzen denaren adinarekin (1. mailako dantzako irakasleen kasuak aztertu...)
- Prestakuntza
- Langileen beste eskaera eta eskabide batzuk

Helburu estrategikoetako batzuk, ikasleei eskainitako plazen kopurua, taldeak, behar diren langileak... ondorengo taulan ikusi daitezke: [Donostiaeskola'21en datuak](#)

b) Sustapen neurriak eta marketin neurriak

Donostiaeskola'21en helburuak lortzeko eskolaren eskaintza egiteko ekimenak planteatu behar da, ondorengo elementuak kontuan hartuta:

- Ateak zabaltzea
- Kontzertuak eta emanaldiak
- Auzoak



- Sareak
- Propaganda
- Webguneak, sare sozialak eta linean komunikatzeko beste tresna batzuk

c) Kanpoko tramiteak (ikasleentzat eta hiriko biztanleentzat)

Nahitaez, planteatutako deszentralizazioarekin batera, tramiteak linean eta Udalinfo bulegoetan egiteko aukera eman behar da. Horregatik, Lehendakaritza zuzendaritzarekin batera ikasleek eta hiritarrek oro har egin beharko dituzten tramiteak eta prozedurak diseinatuko dira. Gaur egun, ondoko hauek diseinatu dira eta hurrengo ikasturteetan hobetu egingo dira kudeaketa hobea egiteko:

01. Ikasle berrien aurretiko izen ematea
02. Ikasleen matrikulazioa
03. Ikasleei ordutegiak eta/edo taldeak aldatzeko eskaera egiteko aukera ematea
04. Txistulari taldearen emanaldiak eskatzea
05. Liburutegiko materiala maileguz ematea eta kopiatzea
06. Ziurtagiriak ematea
07. Ikasleei ikuskizunetarako sustapeneko sarrerak eskatzea
08. Ikasgelak eta entsegu gelak erabiltzen uztea
09. Ikastaroetan, tailerretan eta bestelako jardueretan izena ematea
10. Kontzertu pedagogikoetarako izena ematea
11. Musikoporrak udalekuetarako izena ematea
12. Instrumentuak maileguz uztea
13. Ikasle, familia, profesional eta herritarrek ordua eskatzeko zerbitzua kudeatzea
14. Kontzertu sozialak eskatzea
15. Matrikularen baja eskatzea
16. Espedientearen datuak aldatzeko eskaera egitea.
17. Bestelako eskaerak.

d) Barneko tramiteak (antolakuntzaren barneko prozedurak, prozesuak eta zereginak)

Eskolaren eta haren jarduerak garatzea bideratzen duten barneko planteamendu eta prozedura guztiak egitura berrira egokitu behar dira:

- 01 Administrazioa
 1. Planifikatzeko eta ebaluazioa egiteko prozedura
 - a. Euskara
 - b. Berdintasuna
 - c. Kalitatea
 - d. Berrikuntza
 - e. Gizarteratzea eta parte hartzea.
 - f. Ikastetxearen ebaluazioa
 2. Kudeaketa ekonomikoaren prozedura
 - a. Urteko aurrekontua
 - b. Kontabilitatea eta diruzaintza
 - c. Erosketak eta kontratuen kontrol ekonomikoa
 - d. Matrikulen eta zerbitzuen ondoriozko diru sarrerak kontrolatzea



3. Langileen kudeaketa egiteko prozedura
 - a. Premiak, eskumenak, langileak, eginkizunak eta plangintza
 - b. Langileak hautatzea (poltsak, lan eskaintzak, oinarriak, azterketak...)
 - c. Kontratazioa, abegi plana eta langileen administrazioa.
 - d. Lizentziak eta baimenak
 - e. Parte hartzea, ordezkaritza, negoziazioa eta lanari dagozkion hitzarmenak
 - f. Barne komunikazio
 - i. Dokumentazioa erregistratzea eta artxibatzea
 - ii. Bilerak
 - iii. Ataria eta Internet
 - g. Osasuna lanean
 4. Ekoizpen prozedura
 - a. Kontzertuak eta emanaldiak ekoiztea
 - b. Eskolatik kanpo ateratzeko jarduerak ekoiztea
 - c. Prestakuntza ikastaroak ekoiztea
 - d. Bestelako ekintzak (protokoloak, bisitak...) ekoiztea
 5. Mantentze lanetarako prozedura
 - a. Garbiketa
 - b. Prebentzioko mantentze lanak
 - c. Prebentzioaren kudeaketa eta kanpoko mantentze lanetako enpresen kontrola.
 - d. Ingurumenaren kudeaketa
 6. Kanpoko komunikaziorako prozedura
 - a. Informazioa
 - b. Webgunea, iragarki taula, informazioa emateko monitoreak eta sare sozialak.
 - c. Estatistika eta dokumentu instituzionalak (DAE, EUSTAT...)
- 02 Eskola
1. Irakasleen eginkizuna:
 - a. Eskolak ematea, jarduerak eta emanaldiak egitea
 - b. Eskolak, jarduerak eta emanaldiak prestatzea (material didaktikoa hautatzea, egitea...)
 - c. Txosten pedagogikoak egitea (ikasleak ebaluatzea, memoriak...)
 2. Koordinazio eta zuzendaritza pedagogikoaren eginkizuna
 - a. Zuzendaritza pedagogikoa. Zuzendari pedagogiko orokorra ezartzea planteatu da, Eskolaren egoitza guztiak koordinatuko dena. Zuzendaritza lan hori bateragarria izango litzateke kargudunaren jatorrizko egoitzaren zuzendaritza lanarekin
 - i. Musikaren Egoitza Nagusia, Atotxako zelaian kokatua
 - ii. Dantzaren Egoitza Nagusia, Nestor Basterretxean kokatua
 - iii. Ekialdeko Barrutiko Eskolaren egoitza. Seguruenik Larratxon egon beharko litzateke, barrutiko erdigunean baitago
 - b. Zuzendaritza pedagogikoarekin batera 3 Ikasketa Buruzagitza ezarriko dira (egoitza bakoitzean bat)
 - c. Emanaldi publikoen koordinazioa
 - d. Liberazioak, berrikuntzarekin eta berriazko proiektuekin lotutako zeregin berriak garatzeko (sareak, blogak, entzute aktiboak, proiektuak eta unitate didaktikoak egitea...)

03 Txistulariak

04 Mediateka eta dokumentazio zerbitzua



12. Proiektuaren garapenaren kronograma

Kapitulu honetan proiektu osoa nola ezarri aurreikusten da. Proiektua errazago hedatu eta lortzen diren errekurtsoetan oinarritutako premien eta egiazko aukeren arabera erakundearen egokitzapena planteatzeko.

2016-17 ikasturtea amaitu arte

- **Kudeaketa:**
 - 2017-18ko Plan estrategikoaren onarpena eta honen komunikazioa.
 - Eskolako kanpoko izapideak abian jarri eta prozeduren funtzionamendu zirriborroak prestatu, eskolako prozeduren moldaketekin batera.
 - “[Auzoetako gelen irakasleen profilaren deskribatzailea](#)” amaitu eta 2017-18 ikasturte osorako irakasleen prestakuntza gehitu.
 - Eskolekin lankidetzak ereduak prestatu.
 - Hezkuntza saila eta Eudel-en arteko negoziazioak eta dokumentuak aztertu Donostiaeskola-ren interes ekonomikoak kontutan izango direla bermatzeko.
 - Administrazio batentzat Zerbitzu eginkizunak, egitura berriak ekarriko dituen hitzarmenen kudeaketa eta izapideak babes bereziarekin egin ahal izateko.
 - Marketinaren handitzea: sare sozialak, weba...
 - Aurretiazko izen ematea, matrikulazioa eta talde aldaketan egitura egokitu, egoera berrira moldatzeko

- **Auzoetako gelak:**
 - Gutxienez 2 egoitza berri abian jarri aztertutako auzoren batean, zeinetan I mailako ohiko mailez gain 3 urteko haurrentzako eskolak eskainiko diren.
 - UNIBERTSITATEAN eskainiko diren Talde instrumental berriak.
 - Hariak
 - Haizeak

- **Musikaren Egoitza Nagusia:**
 - Instalakuntzak eta biltegiak amaitu eta egokitu.
 - Musika eta Mugimendua 3 urteko haurrentzat (berrikuntza).
 - Irakasgai berria: “Entzunaldi aktiboa” Atotxako egoitza nagusian eta hiriko kultur agendan oinarritua.
 - [EOS](#)-aren kontzertu zikloa.
 - [Miramongo Matine](#)-etako kontzertu zikloa.
 - [Kursaal Klasikoa](#) Fundazioaren kontzertu zikloa.
 - [Kursaal Herrikoa](#) fundazioaren kontzertu zikloa.
 - Donostiaeskola-ko musika programazioa.
 - Hiriko Dantza programazioa.
 - Abesbatza - Lirika programazioa (Sasibil, Opus Lirika, Orfeoia, Easo...)



- Ikasketa arautuetara sartzeko sarbide frogak prestatzeko Irakasgai berriak:
 - Ikasketa profesionaletarako sarbidea, Eskudero kontserbatorioko (4-5-6) froga teorikoa (froga eta irizpideak)
 - MUSIKENE Jazz-era sarbidea: Froga teorikoa eta taldea (A1J, A2J, A3J)
 - MUSIKENE Pedagogia/interpretazio klasikorako sarbidea: Oinarrizko prestakuntza ([A1](#), [A2](#), [A3](#), [A4](#),) eta pedagogiareko berezia ([C1](#), [C2](#), [D](#))
 - Kontzertu pedagogikoetako emanaldiak bultzatu, txistularien eskaintza gehituz eta Ikastetxeetara hurbilduz.
- **Dantzaren Egoitza Nagusia:**
 - Dantza eskolako hobekuntzak amaitu.
 - Euskal dantza eta Dantza garaikideko 2 lanpostu sortzea %50eko lanaldiarekin.
 - Eraikineko lanen azken doikuntzak amaitzea (dantza zolu berria, sarrera sistema...)

2017-18 IKASTURTEA

- **Kudeaketa:**
 - Giza baliabideak:
 - Lan poltsa auzoetako geletako espezialitate berrietarako.
 - Dokumentu instituzionalak:
 - Kudeaketa planak Udalaren premietara eta Eskolaren beharretara egokitzea.
 - IHP eta AFA berriak idatzi eta onartzea.
 - Gardentasun ataria:
 - Informazio eskuragarria antolatzea eta argitaratzea
 - Eskolaren kudeaketa aplikazio berrirako migrazioa prestatzea, ikasle eta familiek app bidez, informazio eta zerbitzuetarako sarbide aurreratua izateko aukera emateko.
 - Zuzendaritza eta berria eta pedagogia koordinazioko karguak hautatzeko prozesuak.
 - Kudeaketa plana eta 2017-18ko ebaluazio oroitidazkia antolaketa berrira egokitutako prozesu eta estrategia adierazleekin.
- **Auzoetako gelak:**
 - Gelak erabiltzeko baldintzak eta hitzarmenak negoziatzea. Aukerak aztertu eta ikastetxeen ezaugarrietara egokitu, bestelako alternatibak albo batera utzi gabe.
 - Udan, instalazioak egokitzea eta beharrezko materiala erostea.
- **Musikaren Egoitza Nagusia:**
 - 1. mailako hezkuntza eskaintza egokitzea, auzoetako eskaintza berria kontuan hartuta.
 - Instrumentuen irakaskuntzari buruzko eztabaida: taldeak, musika hizkuntza.
 - "Eskolaren lagunen kontzertuak" goi mailako ikasleekin eta musikari profesionalekin.
- **Dantzaren Egoitza Nagusia**
 - Premien programa prestatzea eta handitzeko aurreproiektua egitea.



2018-2019 IKASTURTEA

- **Kudeaketa:**
 - IHP eta AFA berriak.
 - Matrikulazioa eta kudeaketarako aplikazio berria erabiltzea.
 - Giza baliabideak:
 - Administrazio Unitateburuaren lanpostua (titularra erretiratzeko delako) desagerrarazteko erabakia hartzea lanpostua eskakizunen aldatzeko (A2).
 - Auzoetako irakasle berriek sortutako beharrak 2018ko aurrekontuan sartzeko.
- **Auzoetako gelak:**
 - Lan sistema eta koordinazioa, onartutako IHP berria oinarri hartuta.
- **Musikaren Egoitza Nagusia:**
 - Aurreko ikasturteetan hitzartutakoari jarraituz, egin beharreko aldaketak.
- **Dantzaren Egoitza Nagusia**
 - Handitzeko eta kudeatzeko proiektua, 2019ko aurrekontuan sartzeko.
- **Ekialdeko Barrutiko Eskola,**
 - Hedapena, aukerak eta berriazko azpiproiektua prestatzea (espezialitateak, interakzioak...).
- **Proiektuaren garapena doitzea eta berrikustea, proiektuaren ezarpenaren arabera egokitzeko.**

2019-2020 IKASTURTEA

- **Kudeaketa:**
 - IHParen eta AFaren ezarpena berrikustea eta haien premietara egokitzea.
 - Giza baliabideak:
 - 2020ko aurrekontuko diru kopurua gehitzea, lanaldi handiagoa eta Ekialdeko barrutiko eskolako lanpostuak erantsiz.
 - Administrazio Unitateburuaren prozesu berria
- **Auzoetako gelak:**
 - Ikasle kopurua handitzea.
 - Auzoetako kultur eragileekin koordinatzeko ekintzak.
- **Dantzaren Egoitza Nagusia**
 - Handitzea proiektua, 2020ko aurrekontuan sartzeko kudeaketak.
- **Ekialdeko Barrutiko Eskola,**
 - Hedapena, aukerak eta berriazko azpiproiektua prestatzea (espezialitateak, interakzioak...).
- **Proiektuaren garapena doitzea eta berrikustea, proiektuaren ezarpenaren arabera egokitzeko.**



2020-2021 IKASTURTEA

- **Kudeaketa:**
 - Giza baliabideak:
 - Lan eskaintza publikoa
 - 2021ko aurrekontuan sartzea Donostiaeskola'21ean behar diren aurrekontuaren aurreikuspenak.
 - Plan Estrategiko berria garatu (2021-2025)
- **Auzoetako gelak:**
 - Plaza eskaintzaren behin betiko zehaztapena, diseinu berriarekin.
 - Auzoetako agente kulturekin koordinatzeko ekintzak.
- **Musikaren Egoitza Nagusia:**
 - Kontzertu pedagogikoen emanaldiak bultzatzea, Txistularien eskaintza erantsiz eta ikastetxeetara hurbilduz.
- **Dantzaren Egoitza Nagusia:**
 - Handitzeko eta kudeatzeko proiektua, 2021eko aurrekontuan sartzeko.
- **Ekialdeko Barrutiko Eskola:**
 - Proiektuaren garapena
- **Proiektuaren garapena doitzea eta berrikustea, proiektuaren ezarpenaren arabera egokitzeko.**